

Adineko pertsonentzako errealitate bat al da ekitate digitalerako eskubidea?

- Ostiral honetan, urriak 1, "Adinekoen Nazioarteko Eguna" ospatzen da, "adin guztientzako ekitate digitala"-ren lelopean.
- Matiak, #100fluencers-en (www.100fluencers.eus) bitartez, lehentasun gisa ezartzen du adinekoentzako ekitate digitalari heltzea, mundu digitalean sarbide eta parte-hartze esanguratsua errazteko.
- Orain arte, Guuk, Air Liquide HealthCare, Wetak, Shernan eta Google bezalako entitateek konpromisoa hartu dute proiektuarekin.
- Matiako zentroetan bizi diren pertsonak ahotsa goratu dute eta adin guztietan ekitate digitala bermatzeko lan egin behar dela adierazi dute.
- Eten digitalak agerian uzten du adinekoen % 30ek oraindik ez dutela Internet erabili azken urtean, alfabetizazio digitalaren beharra mahai gainean jarritz.

(Donostia, 2021ko irailak 29). Pandemiak adineko pertsonen arteko eten digitala murriztea bultzatu du, eta 2020an 50 puntu baino gehiago murriztu da. (<http://envejecimientoenred.es/las-personas-mayores-reducen-la-brecha-digital/>). Hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko, batez ere adin-tarte handienetan.

Hori dela eta, errealitate horretaz jabetuta, eta adinekoen Nazioarteko Eguna dela eta, Matiako zentroetan bizi diren hainbat pertsonak beren ahotsak batu nahi izan dituzte, gure bizitzetan gero eta presentzia handiagoa duen ingurune birtual batean sartzea errazteko eskatuz, eta, horrela, Nazio Batuen urte honetarako aukeratutako leloak adierazten duen "adin guztietarako ekitate digitala" ziurtatzeko.

Adinekoak natibo digitalak ez badira ere, ezerk ez ditu eragozten ikasteko eta teknologia berri horien erabilera eta onurak egunerokotasunean txertatzeko. Adin guztietarako gizarteaz hitz egitea aukeraberdintasunaz eta eskubideez hitz egitea da, pertsona horiek egokitu behar duten eremu batean. Horretarako, honako hau eskatzen dute:

- Mundu digitalean eta informazioan sartzea.
- Ingurunearekin, munduarekin konektatzea.
- Digitalki seguru sentitzea.
- Beren pribatutasuna errespetatzea.
- Egokitzen laguntzea eta ingurune berri horretan partaide izatea.

Gure protagonistek dioten bezala: gure mundua bere mundua ere bada. Beraien eskaera aintzat hartu dadila. Zor diegu, zor diegu elkarri.

Ikusi bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=WjHVXs6Jl-k>

Adineko pertsonak oraindik ez dute adin txikiagoko gainerako pertsonen sarbide eta presentzia bera bitarteko digitaletan. Horrek hainbat arrisku dakartza berekin, hala nola administrazio-kudeaketak egiteko zailtasuna, isolamendu-sentsazioa, bakardade-sentsazioa... Baina pobretzea ere badakar gainerako gizartearentzat, adineko pertsonen esperientziak eta ezagutzak ingurune digitalean ez baitira ikusten.

#100fluencers: proiektu bat, hiru bloke

matia

MatiaZaleak diseinatutako ekimen honek hiru bloke ditu, eta ezin hobeto kokatzen da Nazio Batuek "adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna" dela-eta proposatutako leloan: "Adin guztientzako ekitate digitala".

1. Alde batetik, sare sozialek erakusten dituzten zahartzearen estereotipoen azterketa egingo da. Horretarako, Matia Institutuak azterlan bat egingo du, zahartzearekin lotutako etiketak eta estereotipoak eta sare sozialetan, komunikabide digitaletan eta literatura zientifikoan duten bilakaera aztertzeko.
2. Bigarren blokean, adinekoak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) nola hornitu eta gaitu landuko da. Pandemiak bultzada handia eman dio eten digitalaren murrizketari. Baina oraindik ere badira Internetera konektatu ezin diren eta informatzeko eta komunikatzeko teknologiak erabiltzen ez dakiten pertsonak, eta batez ere adinekoak. Horrela, gero eta digitalizatuagoa den errealitate batetik kanpo geratzen dira (administrazioarekiko izapideak, online banka, Sare Sozialak...), eta bakartasun- eta isolamendu-egoeren eraginpean jartzen dira. Azken batean, eten digitalaren ondorioz, adineko askok ezin dute mediku-hitzordua eskatu edo familiarekin komunikatu.
3. Eta, azkenik, #100fluencers programaren helburua zahartzearen begiradei buruz sensibilizatzea da. Horretarako, gaurtik aurrera, hainbat belaunaldiren arteko elkarrizketak islatzen dituzten bideoak zabaltzen hasiko dira, zahartzeak zer esan nahi duen, zer estereotipo dauden, zer erabilera ematen diegun... Hori guztia, guztiok mundu digitalaren parte izatearen garrantziaz gizartea kontzientziatzeko eta, era berean, zahartzearen kontzeptuari ikuspegi positibotik balioa emateko.

Aportaciones a #100fluencers www.100fluencers.eus.

Proiektua lagundu nahi duten pertsona guztiek <https://www.matzaleak.eus/es/crowdfunding-social/100fluencers> webgunean gaitutako crowdfundingean parte hartu dezakete, edo MatiaZaleak elkartearen produktu solidarioak erosi.

Guuk, Air Liquide HealthCare, Wetak, Shernan bezalako enpresek, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala bezalako erakundeek eta Google-ko lankideek konpromisoa hartu dute dagoeneko proiektuarekin.

Matia Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorragatik, eta 130 urtetik gorako esperientzia du. Erreferente bat da Gipuzkoan adineko pertsonen ematen zaien arretan eta zahartzeari buruzko ikerketan, maila nazionalean eta nazioartekoan. Pertsonen oinarritutako arretaren printzipioak landuz, pertsonen zahartze-prozesuan laguntzea du helburu, haien ongizatea hobetzeko, ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortuz, haien autonomia eta duintasuna sustatzeko.

2002an, ikerketa-institutu bat sortzea erabaki zuen (**Matia Instituto**), ikerketa/ekintza integrazteko eta eguneroko ebidentzian eta praktikan oinarritutako ezagutza sortzeko.

2016an, **MatiaZaleak** jarri zuen abian, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen ongizateari laguntzeko ekimenak abian jartzeaz arduratuko dena, eta Fundazioaren helburua babesten duten pertsona eta erakunde guztiak batzen dituena.

Informazio gehiago:

matia

Prensa kabinetea:

Silvia Turné

Mail: silvia.turne@matiafundazioa.eus

Telefonoa: (+34) 943 31 71 02

Mugikorra: (+34) 616 112 580

matia
zaleak